

Nekazaritza-elikadura arloetako alertak kudeatzeko protokoloa



Nekazaritza-elikadura arloetako alertak kudeatzeko protokoloa



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

Nekazaritza-elikadura arloetako alertak kudeatzeko protokoloa.– 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005

p. ; cm. – (Elika gidak = Guías Elika ; 1)

Contiene, además, con portada y paginación propias, texto contrapuesto en castellano: "Protocolo para la gestión de alertas agroalimentarias en la CAPV"

ISBN 84-457-2210-7

1. Industria alimentaria-Control de calidad. 2. Industria agropecuaria-Euskadi-Control de calidad. I. Euskadi. Departamento de Agricultura y Pesca. II. Título (eurkera). III. Serie

663/664(460.15):658.562

63(460.15):658.562

Argitaraldia: 1.^a, 2005eko urtarrila
Ale-kopurua: 500
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Nekazaritza eta Arrantza Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkiak: Mikel Arrazola

Fotokonposizioa -
Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono "El Montalvo", parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-2210-7
D.L.: S-????

OHARRA: Honako agiria, EAEko Nekazaritza-elikadura Arloetako Alertak Kudeatzeko Protokoloaren dibulgaziozko argitalpena da.

Sarrera

Duela gutxi gertatu diren nekazaritza arloko elikaduraren krisialdietako ondorioek irauten dute oraindik eta EUropan, aldaketa handiak eragin dituzte nekazaritzako elikagaien segurtasunaren arloan.

Behi Eroen Gaitza izan da Europan gertatutako krisialdirik handienetakoa eta horrek, agerian jarri zuen egoera horretan administrazioak burutzen dituen zaintza eta kudeaketa. Horri dagokionez, euskal administrazioaren jokaera eredugarria izan bada ere, aurrera egin eta gertaera horietarako hobeto prestatu nahi izan genuen. Horren ondorioa da, NEKAZARITZA-ELIKADURA ARLOETAKO ALERTAK KUDEATZEKO PROTOKOLO hau.

Alerta egotekotan, burutu beharreko jarduketak arautu, aurreikusi eta metodologia ematean datza aipatu protokoloa. Premia handiko egoera horietan azkar eta era eraginkorrean lan egin behar da, nekazaritzako elikagaien ekoizpenari ahalik eta kalterik txikiena egiteko.

ELIKAn Nekazaritzako Elikagaien Alerten Unitatea 2001eko urtarrilean sortu zen erreferentzia eta koordinazioko gune gisa. Urteko 365 egunetan eta 24 orduz laguntza eskaintzen die Alerten Arduradunei eta unitate hori tresna lagungarrien garapenaz arduratzan da. Ildo horretatik, informatikako aplikazioa burutu da eta bertan, denbora errealean kontsultatu ahal dira alertan egiten ari diren jarduketak. Era berean, artxibo historikoa ere kontsultatzea dago jarduketak aztertu eta zuzentzeko. Gainera, badago laguntza eta informaziorako direktorioa erabakiak hartzeko eta baita, baztertu eta desagerrarazteko jarduketan baliabideak ere.

Halaber, ari diren agente guztien zeregina eta jakinarazpeneko bideak zehazten saiatu gara, alerta gertatzen denerako dena loturik egon dadin.

Hala eta guztiz ere, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren jarduketek aurreikustea dute helburu eta horri dagokionez, ikerkuntza, kontrol eta bestelako programak garatzen dira. Saiakerako probak ere maiz egiten dira, alerta gertatzen denean, gure langile eta baliabideak prestatuta egon daitezzen.

Argitalpen honen bitartez, Alerten Kudeaketa sistema helarazi nahi diegu interesa erakutsi duten guztiei, erabilgarria izan eta ahalik eta gutxien erabiliko dugulakoan.



Gonzalo Sáenz de Samaniego Berganzo
Consejero de Agricultura y Pesca

Alerta egotekotan, azkar eta era eraginkorrean lan egin behar da, nekazaritzako elikagaien ekoizpenari ahalik eta kalterik txikiena egiteko.



1.	Helburuak.....	9
1.1	Alertak kudeatzeko prozesuaren norianokoa.....	9
1.2	Alerta-jakinarazpenen diagrama.....	10
2.	Alerta jakinarazpenak.....	13
2.1	Larrialdietarako zerbitzua (24orduz / 365 egunetan).....	13
3.	Informazio bilketa.....	15
4.	Ezezko erabakiaren jakinarazpena eta ixtea.....	17
5.	Alertaren kudeaketa.....	19
5.1	Informazioaren analisisa.....	19
5.2	Ekintzak.....	20
5.3	Jakinarazpena.....	23
6.	Ixtea eta erregistroa.....	27
7.	Protokoloaren kudeaketa.....	29
8.	Arduren laburpena.....	31
8.1	ELIKAre Alerta UNitatea.....	31
8.2	EJNASeko Alerten Arduradunak.....	31
8.3	Foru Aldundietako Sailletako alerta rduradunak.....	31
8.4	Neiker.....	31
8.5	EJNASeko prentsa arduraduna.....	31
9.	Glosategia.....	33
10.	Eranskinak.....	35
1. eranskina:	Alerta-jakinarazpenak.....	35
2. eranskina:	Alertak kudeatzeko erakunde eskunak.....	35
3. eranskina:	Informazioaren analisisa.....	35
4. eranskina:	Bazterreratze eta Deuseztatze Plana.....	35



1. Helburuak

Honako Protokoloak EAEko agintari eskudunek hartu beharreko jokabidea ezartzea du helburu, animalien elikadura, abeltzaintza-osasuna eta nekazaritzako elikagaien kalitatearen arloan, nekazaritza-elikadura esparruan alertak gertatuz gero. Protokoloak langileek ekintzak koordinatu nahi ditu, hurrengoak lortzeko:

- *Lehen sektorean*, herritarren eta abeltzaintzaren osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen produktuak, elika katean sar ez daitezen *neurriak hartzea*.
- *Animalien osasunari* kalte egin diezaioketen *epizootioa larrien aurkako neurriak hartzea*.
- EAEen landutako, aldarazitako eta ontziratutako *produktuak edota animaliak giza-osasunerako zein abereen osasunerako kaktegarriak izan ahal badira, horien gutz-tien banaketa eta salmenta etetea*.
- *Industria, kontsumitzaile, agintari eta alertan inplikaturako erakundeak jakinaren gainean edukitzea*.
- EAEko elika katearen ekoizpen-arloetan kalte egin dezaketen *gizarteko alarma ezbeharrezkoak ekiditea*.

1.1. Alertak Kudeatzeko Prozesuaren norianokoa (rozesuaren mugak)

Mugak: Prozesuari dagozkion ekintzak eta ez dagozkionak zehazten dituzte:


- *Hasierakoa*: Alertak Kudeatzeko Prozesuak eragindako ekintza.
Elika-katean sar litezkeen irregulartasun edo osasun arazoak atzematea.
- *Amaierakoa*: Azken ekintza.
Kausa eta alerta bera desegin ahal izateko prebentzio, informazio, formazio eta etearazpen neurriak.
- *Tartekoak*: Ekintzaren bat Jakinarazpen-jarduerak Prozesutik ateratzen denean:
 - a) EJNASi ez dagozkion erakunde partehartzaileei eman beharreko informazioa eta
 - b) Alertak Kudeaketa Prozesuaren xedetik kanpo dauden ekintzak.

Alertak Kudeatzeko Sistemaren helburuak:


- Informazioa eta datuak gainbegiratu eta zaindu.
- Informazioa aztertu.
- Erabakiak hartzeko aholkuak eman.
- Erabakien betearazpena koordinatu.
- Jakinarazi (industriei, ustiapenei, kontsumitzaileei, agintariei eta inplikaturako erakundeei).

Xedea hau da: Lehen sektorean, herritarren eta abeltzaintzaren osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen produktuak, elika katean sar ez daitezen neurriak hartzea.

1.2. Alerta-jakinarazpenen diagrama



ALERTA-JAKINARAZPENEN DIAGRAMA





2. Alerta Jakinarazpenak

Fase hau oinarritzkoa da, izan ere, elikadura segurtasunerako oso garrantzitsua da edozein arrisku laster detektatzea. Alerta piz lezakeen edozein arriskuren iturria identifikatu eta zehaztu beharra dago, eta baita horren berri izan beharko luketen erakunde guztiak ere, hartu beharreko neurriak azkar eta erakunde guztien artean hartzeko.

Elika-katean sar litekeen edozein irregulartasun edo osasun arazo egonez gero æberdin da zeri dagokion: animalien osasunari edota nekazaritzako elikagaiei—, *ELIKAKo Alerta Unitatera* jo behar da eta han, alerten inguruko informazio guztia gainbegiratu eta koordinatu egingo da.

EAUk arduradun teknikoei eta agintari eskudunei alerta berehala jakinaraziko die, ezarritako bideen bitartez.

Barne komunikazioko tresna gisa, informatikako aplikazioa garatu da eta bertan, alertak kudeatzeko arduradunek garatutako ekintzak erregistratzen dira. Hasierako jakinarazpenaren datuak EAUri igorri eta informatikako aplikazioan erregistratzen dira. 1. eranskinean ("Alerta Jakinarazpenak") EAUri jakinarazi beharreko gutxieneko datuak jasotzen dira.

Era berean, 2. eranskinean deskribatzen dira erabilgarri izan edo alerta kudeaketan inplikatura egon daitezkeen *erakundeak*. Berorien helbideak eta harremanetarako bideak datu-basean erregistratzen dira eta informatikako aplikazioan daude eskura (Agenda-Direktoria).

2.1. Larrialdietarako zerbitzua (24orduz / 365 egunetan)

Ohiko lan ordutegitik kanpo ere larrialdiak ager daitekeenez, Alerta Unitateak eguneko 24 orduetan Unitatearekin harremanetan egon ahal izateko zerbitzua dauka eta kasua oso larria izanez gero, arduradunekin harremanetan jarri ahal izateko.

Alerten Unitatearen telefonoa, bulego ordutegitik kanpo, larrialdietarako telefono mugikorrrera besteratzten da eta, Unitateko arduradunek zaintzak egiten dituzte mugikor horren bitartez zerbitzua eskaini ahal izateko.

Ilido berean, alerten eta foru aldundietako arduradunek Alerta Unitatearekin etengabe-ko harremana eduki ahal izateko bitartekoak izan behar dituzte.

Nekazaritza–Elikadura Arloetako Alerta Unitatea

Telefonoa: 902-540-240

Fax: 902-540-241

E-posta: «alerta@elika.net»

ELIKAKo Alerta Unitateak alerten inguruko informazio guztia gainbegiratu eta koordinatu egin behar du.

Alerta Unitateak 24 orduko larrialdi-zerbitzua dauka.



3. Informazio bilketa

Helburua, egon litekeen arriskuaren azterketa eta ebaluazioa erraztuko duen beharrezko informazio guztia jasotzea da, elikadurako alerta den ala ez erabaki ahal izateko eta zenbaterainokoa den zehazteko, eta horrela, lehenbailehen eta eraginkortasunez jokatu ahal izateko.

ELIKAk Alerten Unitatean hasiera atalean dauden datuak jasotzen dituzte eta horren berri ematen diote dagokion alerta arduradunari.

Alerten kodeak aaaa/nnn/**** siglen bitartez adierazten dira:

- aaaa: urtea.
- nnn: alerta zenbakia (urteko zenbaki korrelatiboa) 001tik 999ra.
- ****: A (animalia bizia), P (nekazaritzako elikagai-produktua), M (ekoizpen bideak) eta O (Beste batzuk).

Alerta bera gisa hartzen da, eta ondorioz, kodifikazio bera dauka, arrisku berarekin (kausazko agentea) eta antzeko baldintzatan sortutako edozein alerta.

Arriskuaren azterketa eta ebaluazioa erraztuko duen behar-beharrezko informazio guztia jaso behar da.



4. Ezezko erabakiaren jakinarazpena eta ixtea

Honako protokolo honetako zehaztapenen arabera kudeatzen ez den egoera izango da, hurrengo egoeretan:

- a) EJNAS eta/edo FFAANSen aginpidetzakoa ez denean.

EJNAS/FFAANSen aginpidetzakoa ez bada, Alerta Unitateak, aurretiaz alerten kasuan kasuko arduradunari kontsultatuta eta haren idatzizko onespina jasota, ordurarte jasotako datuen berri eman behar die inplikaturik dagoen/dauden agintariari/ei, aldezturik ezarritako formatuaren bidez.

- b) Ez dago arriskurik, ez kontsumitzaileentzat ezta abeltzaintzaren osasunerako ere:

Ez kontsumitzaileentzat ezta abeltzaintza-osasunerako ere, arriskurik ez dagoenean, Alerten Unitateak, aurretiaz alerten kasuan kasuko arduradunari kontsultatuta eta haren idatzizko onespina jasota, honako hauei jakinaraziko die:

- Kasuan kasuko administrazioari, aldezturik ezarritako formatuaren bidez, ordura arte jasotako datu aipagarriak.
- Irregularitasunaren eragileari. Ekoizle eta bestelako interesatuei horretarako administrazio-sistematika erabilita.

Edonola ere, bi kasuetan, alerta hasi eta horren berri eman duen "sorrerari" jakinarazi behar zaio, zer egin den: ekoizlearekin harremana izan, agintariei jakinarazi, etab.

"Alerta Jakinarazpena" alerta edo ez-alertatzat hartzeko erabakia EJNAS eta FFAANSko alerta-arduradunei eta EAUri dagokie. Jakinarazpen guztiak informatikako aplikazioan erregistratzen dira kontsultak egin ahal izateko.

Jakinarazpen guztiak informatikako aplikazioan erregistratzen dira kontsultak egin ahal izateko.



5. Alertaren kudeaketa

Egin diren ekintzak eta lortutako agiri edo erregistroak informatikako aplikazioan erregistratzen dira, alerta bakoitzaren artxibategi osatua izateko. Horrela, interesatuek alerta guztiak kontsultatu ahal dituzte denbora errealean.

5.1. Informazioaren analisia¹

Honakoa zehaztea dauka helburu:

- Alertaren kausa-sorrera eta haren larritasuna.
- Alerta zenbaterainokoa izan daitekeen (eragina jasan duten ekoizleak / abeltzainak).

Aipatu informazioa ez edukiz gero, honako eran jaso daiteke:

- *Informazio eskaera-hartuemana:*
Ekoizleei / abeltzainei eta eragina jasan duten erakundeei, alertari buruzko informazioa eskatzen zaie eta haren inguruko informazio eta datuak eskaintzen zaizkie. Informatikako aplikazioak eskutitz eredu du, elkarlanaren jakinarazpena/eskaria egiteko.
- *Kutsatuta egon daitezkenei bisita:*
Informazioa jaso, laginak hartu eta dokumentazioa-informazioa *in situ* jaso asmoz.
- *Laborategiko probak:*
Arriskua egiaztatu edo baieztatu asmoz.
- *Bestelako informazioa:*
Arrisku posible horren informazioa bildu teknologia zentroetan, artxibategietan eta bibliografietan.

Arestian aipaturiko ekintzak "informazio-bilketa eta jakinarazpeneko fasean" ere egin daitezke arriskua zehaztu eta ebaluatzeko. Datuen analisiak alerta den ala ez zehazten du.

Zenbait kasutan kautelazko neurriak hartu beharra dago arriskuaren identifikazioa eza-gutu eta/edo baieztatu artean (kausazko agentea)².

¹ 3. eranskinean zehazten dira fase honetan ezarri diren gutxieneko datuak.

² Ikus 5.2. atala: "Ekintzak".

Informazioaren analisiak honakoa zehaztea dauka helburu:

- Alertaren kausa-sorrera eta haren larritasuna.
- Alerta zenbaterainokoa izan daitekeen (eragina jasan duten ekoizleak / abeltzainak).

Alerta guztiak desberdinak, dira eta bakoitzak bere estrategia espezifikoa behar du hortaz.

Era berean, afektatutakoei edo informazio iturriei jakinaraziko zaien informazioa definitu beharra dago, zertan ari diren, zergatik, etab.

Honako fase honen ondorio gisa, honakoa baloratzen da:

- Arriskuaren larritasunaren sailkapena hurrengo irizpideen arabera egiten da:
 - *I. mailakoa (larria)*: produktu arriskutsua bada edo berorren akatsek osasun-arazo larria edo heriotza eragin ahal badute edo, ENERen A zerrendako animalia-gaixotasuna baldin bada.
«http://www.oie.int/esp/maladies/es_classification.htm#ListeA»
 - *II. mailakoa (neurritzkoa)*: produktuak aldi baterako osasun-arazoak sortu ahal baditu, arriskua oso larria ez bada edo ENERen B zerrendako animalia-gaixotasuna baldin bada.
«http://www.oie.int/esp/maladies/es_classification.htm#ListeB»
 - *III. mailakoa (arina)*: produktuak arazo txikiak eta aldi baterako sortzen baditu, zailtasunik gabe, edo ekonomia edota osasun-ikuspuntutik garrantzirik gabeko animalia-gaixotasun lekutua baldin bada.
- EHAEko ekoizle/abeltzainengan eragina izan badezake.
- Kontsumitzailearengan ere eragina izan badezake. Kasu horretan honako hau egin behar da:
 - Osasun Publikoari (OP) jakinarazi.
 - Bezeroei, banatzaileei jakinarazi. Aurreko kasuan bezala ekoizlea/abeltzaina bera izango da bere bezeroei, minoristei... jakinaraziko diena.

5.2. Ekintzak

Alerta dela eta burutu beharreko ekintzak honako eran sailka daitezke:

- Ibilgetzea, baztertzea eta deusezteza.
- Ekintza zuzentzaileak.

Alerten kudeaketa eta gauzatzea EJNAS eta FFAANSko alerta-ardurakunek burutuko dute, EAUren laguntzaz. Alerta-motaren arabera, Alerta Komitea eratuko da Alerten Arduradun, inplikaturiko erakunde, aditu, eta abarrekin.

5.2.1. Ibilgetzea, baztertea eta deusezte

Planak bai animalia bai nekazaritzako produktua baztertu edo deuseztu ahal izateko beste informazio eduki beharra dauka, kontsumitzailearentzako arriskutsua izan badaiteke.

Alerta guztiak desberdinak dira eta bakoitzak bere estrategia espezifiko behar du hor-taz, hainbat faktore komun kontuan hartu beharra dago eta horiek kontuan hartuko dituen plana garatu.

Hona hemen plan batek eduki behar dituen edukien deskribapen zehaztua:

- *Helburua.* Atal honetan xede nagusia argi eta garbi zehaztu behar da. Ekintzak burutuz gero, honakoak lor daitezke:
 - Kontsumitzailearen segurtasuna. Zein eratan eragin dezake kontsumitzailearen segurtasunean?
 - Banaketaren eta salmentaren etetea. Non dago produktua eta/edo animalia?, zenbaterainokoa izan da banaketa?
 - Merkatutik eraginkortasunez baztertu. Bazterketarako zein baliabide erabili?, nora eraman produktua eta/edo animalia?
 - *Bazterreratze eta Deuseztatze Plana.* Bi tratamendu aukera daude eta xedea baldintzatzen dutenez, aurretiaz zehaztu behar dira:
 - Osasunarentzako kaltegarria den produktu edo nekazaritzako elikagaia merkatutik bazterreratzea.
 - Osasunarentzako kaltegarria den produktu edo nekazaritzako elikagaia merkatutik bazterreratzea.
- Bazterreratze eta Deuseztatze plana burutzeaz arduratuko den funtzioa zehazten da. Ekoizleak zein administrazioak burutu dezake (Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek...).
- *Xedea eta tratamendua.* Fase honetan argi eta garbi zehaztu beharra dago:
 - Nora eramango duten.
 - Tratamenduaren data eta ordua.
 - Bitartekoak.
 - Informazio bilketa.
 - Erregistroak (beharrezko datuak).

Produktua/animalia gizakiaren kontsumorako egokia ez bada eta aparteko gune batean biltzen bada deuseztatu edo desnaturalizatu beharra dago, eta hori biltegiratze arduradunak edo tokiko agintari eskudunak ikuskaturik egin behar da.

Komunikazioa garaiz egin behar da, ez itxaron komunikabideek gizarte alerta sortu arte, baizik eta deitu eta gertatutakoa azaldu, alertaren zenbait puntutan zalantza edo ezjakintasuna egonda ere.

Baztertu behar izanez gero, toki bakar batean zentralizatu daiteke edo banaketa handia bada, zenbait bilketa gunetan. Baztertzeko baliabide propioak erabil daitezke, kontsumitzaileak berak egin dezake, banatzaileek...

Halaber, hainbat tokitara bidal daiteke, kasuan kasu, produktua/animalia dagoen tokia-
ren arabera.

Kasu guztietan, garrantzitsua da produktua/animalia egoki identifikatzea eta toki zehatzetan banatzea, gainerako nekazaritzako elikagai edo animaliengandik bereizita.

Baztertutako edo deuseztutako produktuaren edo animalia-aren kodeak eta kantitatea jaso, eta erregistratzeko bitartekoak ezarri behar dira (4. eranskina). Bazterreratze eta Deuseztatze Planeko erregistroen atalean jaso behar diren datuak zehazten dira eta egiaztatze atalean baztertutako edo deuseztatutako nekazaritzako elikagaiaren edo animalia-aren datuak zehazten dira.

Produktua eta/edo animalia baztertu ondoren, jaso eta giza kontsumorako birprozesu daiteke, horretarako egokia bada. Ekoizleak edo abeltzainak zuzenketa ekintzak edo birprozesatzeak egingo baditu, eskumena duen agintariari kontsultatu behar dio eta azken horrek onetsi ondoren egin behar ditu.

Produktua/animalia gizakiaren kontsumorako egokia ez bada eta aparteko gune batean biltzen bada deuseztatu edo desnaturalizatu beharra dago. Biltegiatze arduradunak edo tokiko agintari eskudunak ikuskaturik egin behar da eta, produktua udalgune batean biltzen bada, tokiko agintariaren edo estatuaren edo horretarako esku eman zaion norbaiten ikuskapenaren menpean egingo da.

– *Egiaztapena*

EJNAS/FFAANSko Alerta Arduradunek ekintzak burutu direla eta Bazterreratze eta Deuseztatze Planaren Helburu Orokorra betetzeko eraginkorrak izan direla egiaztatu behar dute.

5.2.2. *Ekintza zuzentzaileak*

Alerta baten ondorio gisa baloratu beharra dago informazio, formazio eta prebentzio ekintzen betearazpena eta, horretarako, "berriro ere gerta ez dadin" ekidin zezaketen kausa/bitartekariei buruzko gogoeta serio bat egin beharra dago.

Alerta baten ondorioz garatu daitezkeen zenbait informazio ekintza honako hauek izan daitezke: informazio kanpainak, ihardunaldiak, hitzaldiak, liburuxkak, etab.

Horiek guztiak, inplikaturako ekoizleei eta/edo abeltzainei edota zenbait erakunde eta kontsumitzailei zuzendutakoak.

Formazio ekintzak agenteengan jokaera aldaketa beharra duten gabeziak nabaritzen direnean eta horrek ikastaroak, praktikak, informazioa... jaso behar izana ekartzen duenean burutzen dira eta kasuan kasu baloratu behar dira.

5.3. Jakinarazpena

5.3.1. Agintarientzako jakinarazpena (alertak dirauen artean)

Atal horretan jakinarazpen ofizialak daude. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari, Autonomia Erkidegoei eta EBri zuzentzen zaizkien jakinarazpenak, bidezko bada, EJNASeko eta FFAANSko alerten arduradun politikoek egingo dituzte.

Arduradun teknikoak (EJNAS eta FFAANS) eta EJNASeko politikariak jakinaren gainean egon daitezen, EAUk alerta kudeaketatik eratortzen diren jarduketara eta alertak maiztasunez jakinarazten ditu.

Jakinarazpen hauetan garrantzitsua da arreta printzipioa kontuan hartzea hartzailearengan beharrezko ez diren alarmak ez pizteko.

5.3.2. Komunikabideentzako jakinarazpena

Hainbat dira jakinarazpenaren xedeak:

- Gizarteari alertaren berri ematea, lasaitzea...
- Gizarteari administrazioak alertak eragindako kalteak ekiditeko hartutako neurrien berri ematea, baita berriro ere ez gertatzeko hartutako prebentziozko neurriena ere.
- Informazioak eta publizitateak EHAeko marka edo sektoreari eragin diezaiokeen kaltea gutxitu edo ekidin.

Alerta bakoitzak estrategia espezifiko bat behar du, transmititu nahi duen helburua zein den argi utziko duena. Harremanetarako erabil daitezkeen baliabideak asko izan daitezke baina argi geratu behar du zer transmititu nahi den (helburua) eta horretan ekin.

Gardentasuna: Gindarra komunikazioaren gardentasunean jarri beharra dago.

Orohar, honako hauek dira kontuan hartu beharreko printzipioak:

- *EJNASeko prentsa aholkularia da harremanetarako arduradun bakarra.*
- Komunikazioa garaiz egin behar da, ez itxaron komunikabideek gizarte alerta sortu arte, baizik eta deitu eta gertatutakoa azaldu, alertaren zenbait puntutan zalantza edo ezjakintasuna egonda ere.
- Nork?, zer?, noiz?, non?, zergatik?... galderei erantzuteko gai izatea:
 - Produktuaren eta/edo animaliaaren inguruan:
 - Argi eta garbi identifikatzea produktua eta/edo animalia espeziea, kutsatutako kopurua, marka eta/edo sektorea, izen komertziala eta/edo ustiatzea.
 - Zenbaterainokoa den jakitea; zenbat baztertzea lortu den eta gertatzen dena non dagoen...
 - Arriskuaren, kontsumitzailearen inguruan:
 - Osasunerako arriskua zein den, kutsatutakoak, erabilerarako zer kontuan hartu, sintomak...
 - Zer egin produktua edukiz gero, kontsumitu izanez gero...
 - Kontsumitzailearentzako konpentsaziorik dagoen.
- Segurtasuna eta lasaitasuna transmititu behar da; arriskua ekiditeko hartutako neurriak zeintzuk diren aipatu, konfidantza berrezarri.
- Gardentasuna; Datuak ezkutatzea, mezu kontraesankorrak, etab., horrek hiritarrengan segurtasun eza eragin du administrazioak kontsumitzen ditugun produktuei egiten dien kontrolaren inguruan, beraz, indarra komunikazioaren gardentasunean jarri beharra dago.
- Zuzeneko elkarriketa bada edo artikulua bat, testua prestatu eta onetsi.

Albisteak komunikabideetan zein laster agertzen diren jakinda eta gizartearengan eragiten duen alarma ezagututa, elikadura alerta bat dagoenean komunikatua hala-beharrezkoa da. Esperientziak argi uzten digunez, administrazioaren, sektorearen eta kutsatutako enpresaren edo ustiapenaren irudia kontsumitutako nekazaritzako produktuen segurtasunaren kontrolaren aurrean zalantzazkoa da, beraz, alertaren kudeaketa eraginkor bat egiteaz gain, komunikabideekiko harremana oso garrantzitsua da eta, profesionaltasunez eta kontu handiz aurreikusi, planifikatu eta burutu beharra dago.

5.3.3. Beste Batzuk

Jakinarazpenak, arestian aipatutako erakundeei ez baizik eta beste batzuei eginez gero. Atal honen barruan Argitalpen Ofizialak ere badaude: EHAA, GAO, BAO, ALHAO, etab.

5.3.4. Prentsan argitaratutako albisteak

Atal honetan sartzen dira komunikabideetan ematen den alertari buruzko informazio guztia. Prentsan argitaratu diren albisteak batu eta informatikako aplikazioan, dagokion atalean erregistratzen dira.



6. Ixtea eta erregistroa

Elikadurako alerten ixte egokia egiteko Alerten Unitateak espedientea ixteko beharrezko datu guztiak biltzen ditu honako *helburu hauekin*:

- Produktuaren eta/edo animaliaaren bazterreratzea eta deuseztatzea burutu dela bermatzea.
- Alertaren kauei buruzko datu zehatzak jasotzea.
- Alerta berriro ere ez sortzeko beharrezko prebentziozko neurri guztiak hartu direla egiaztatzea.
- Gertatzen diren elikadurako alerta guztien inguruko datu historiko eta berdinak edukitzea.

Espedienteak protokoloan zehar zehaztu izan diren erregistroez eratuta daude eta honako datu hauek jasotzen dituzte:

- Alerta jakinarazpenak.
- Informazioaren analisia.
- Bazterreratze eta Deuseztatze Plana.
- Agintariei eta komunikabideei jakinarazpena.
- Ekintza zuzentzaileak.

Alerta berriro ere ez sortzeko beharrezko prebentziozko neurri guztiak hartu direla egiaztatzea.



7. Protokoloaren kudeaketa

Honako Protokolo hau EAUk berak ematen du, EAEko alerta arduradunek berrikusi eta EJNASeko Sailburuordetzak onetsi ondoren.

Behin onetsiz gero, pdf formatuan informatikako aplikazioan sartzen da, alerten kudeaketako langile guztiek metodologia horren berri izan dezaten.

EAUk soilik du aldarazteko sarbidea eta soil-soilik, informatikako aplikazioko bertsioa dago indarrean.

Erabili beharreko erregistroen formatuetan Intraneten bidez sar daiteke, bete ahal izateko. Eta intranet horren bidez berreskuratu ahal izango dira indarrean dagoen bertsioa erabiltzeko.

Originala Alerta Unitatean artxibatuta egongo da eta alerten arduradunek kopia eguneratuak izango dituzte.

Aldarazpenak EAUk berak argitaratuko ditu, beraz, aldarazpen proposamen guztiak hari igorri beharko zaizkio.

Era berean, EAUn Alertak Kudeatzeko Protokoloaren aurreko bertsioak erregistratzen dira, aldarazpenen erregistro historikoa dutela.

Bestalde, Alertak Kudeatzeko Protokolo honen eraginkortasuna eta abian jartzea egiaztatu behar dira, batetik, iraunarazteko eta bestetik, alerta egotekotan protokoloa beteazteko, honako agiriaren gidoia baliagarria dela frogatuz.

Horretarako, urtean behin gutxienez, alerta gertatu denean (edo bestela, balizko kasu batean) EAUk nola burutu den aztertzen du eta baita ere, agiri honetan azaltzen diren fase eta erregistroak eraginkorrak izan diren ala ez. Ondoren, beharrezko aldarazpenak sartzen dira protokoloak eraginkorra eta erabilgarria izaten jarraitzeko eta erakunde inplikatuak ulertu eta erabil dezaten.

Alertak Kudeatzeko Protokolo honen eraginkortasuna eta abian jartzea egiaztatu behar dira, batetik, iraunarazteko eta bestetik, alerta egotekotan protokoloa beteazteko, honako agiriaren gidoia baliagarria dela frogatuz.



8. Arduren laburpena

8.1. ELIKaren Alerta Unitatea

- Alertei buruzko informazioa jasotzea (Larrialdien Zerbitzuak, egunean 24 orduz eta 365 egunetan, alerta jakinarazpenak arduradun eskudunei helaraztea.)
- EJNAS eta Foru Aldundietako alerta arduradunekin batera lan egin, lagundu eta gainbegiratzea alerten kudeaketan.
- Industriari eta horretan ari diren erakundeei informazioa eskatzea.
- Alerta Arduradunekin batera lan egitea aurreikuspeneko ekintzak burutzeko.
- Alertak ixtea eta erregistroa.
- Honako protokoloaren kudeaketa eta mantenimendu eguneratua.
- Informatikako aplikazioaren mantenimendua.

8.2. EJNASeko Alerten Arduradunak

- Alertaren kudeaketa.
- Alerta eta ondorengo kudeaketen berri Alerta Unitateari ematea.
- Alertak kudeatzeko, Foru Aldundietako Nekazaritza Sailekin koordinatzea eta elkarren arteko komunikazioa izatea.
- Industriari, agintariei eta beste erakunde inplikatuiei helarazitako jakinarazpenak Alerta Unitatearekin koordinatzea.
- Baztertze eta Deuseztatze Plana burutzea.
- MAPA edo Autonomia Erkidegoei igorritako jakinarazpenak.
- Baztertze eta Deuseztatze Plana eraginkorra dela egiaztatzea.
- Ekintza zuzentzaileen garapena.

8.3. Foru Aldundietako Sailetako alerta arduradunak

- Alertaren kudeaketa.
- Alerta Unitateari, alerta eta ondorengo kudeaketen berri ematea.
- Alertak kudeatzeko Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin koordinatzea eta elkarren arteko komunikazioa izatea.
- Industriari, agintariei eta beste erakunde inplikatuiei helarazitako jakinarazpenak Alerta Unitatearekin koordinatzea.
- Baztertze eta Deuseztatze Plana burutzea.
- Baztertze eta Deuseztatze Plana eraginkorra dela egiaztatzea.
- Ekintza zuzentzaileen garapena.
- Nekazaritza eta Arrantza Sailari igorritako jakinarazpenak.

8.4. Neiker

- Alerta Unitateari alerten eta ondorengo kudeaketen berri ematea.
- Arduradun eskudunei eginiko alerta jakinarazpenak Alerta Unitatearekin koordinatzea.
- Alerta eskudun agintariari jakinaraztea.

8.5. EJNASeko prentsa arduraduna

- Komunikabide eta kontsumitzaileekiko komunikazioa.



9. Glosategia

AAEE: Autonomia Erkidegoak.

AFANS: Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Saila.

BFANS: Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Saila.

EAE: Euskadiko AUtonomia Erkidegoa.

EAU: Nekazaritza Elikagaietarako ELIKaren Alerta Unitatea.

EJNASeko arduradun politikoak: Nekazaritzako saiburuordea, Ikerkuntzako zuzendaria. Nekazaritzako zuzendaria, Nekazaritzako Elikagaien Industria eta Politikako zuzendaria, prentsa arduraduna eta NEIKeren presidentea.

ENE: Epizootien Nazioarteko Erakundea.

FFAANS: Foru ALdundietako Nekazaritza Saila.

FFAANS AA: FFAANSeko alerta arduradunak (Abeltzaintzako Zerbitzuak).

FFAANSeko arduradun politikoak: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako doru aldundietako Nekazaritza Saileko diputatuak.

GFANS: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza Saila.

MAPA: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

NAS AA: EJNASen Alerta arduradunak (Nekazaritzako Elikagaien Kalitatea, Abeltzaintzaren Osasuna, Animalien Elikadura).

RASFF: EU-MAPako Alerta Sarea (pentsuak).

OP: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Osasun Publikoaren Zuzendaritza.



10. Anexos

1. Eranskina: Alerta-jakinazpenak.
2. Eranskina: Alertak kudeatzeko erakunde eskudunak.
3. Eranskina: Informazioaren analisia.
4. Eranskina: Bazterreratze eta Deuseztatze Plana.

		ALERTA		
Alertaren izena		Alertaren kodea aaa/nnn/****		Alerta jakinarazpenak
Susmoa ☐	Alerta ☐	Egiten ☐	Amaitua ☐	Bukatua ☐
Nork:		Nori: ALERTA UNITATEA		
Data:				
Iturria / Informazio emalea:				
Nork:		Nori:		Data:
Nork:		Nori:		Data:
Nork:		Nori:		Data:
JATORRIA-ARRAZOIA NEKAZARITZA ELIKADURAKO PRODUKTUA / EKOIZPEN BIDEA / ANIMALIA				
Animalia bizia ☐		Nekazaritza elikadurako produktua ☐		
Ekoizpen bidea ☐		Beste batzuk:		
Salmentaren izendapena Espezia				
Marka		Formatua		Arraza
Erloa		Sexua		
Fabrikazio data		Iraungitze data		Adina
RGS/ Erregistroa		Animaliaren identifikazioa - Krotala		
Beste erreferentzia datu batzuk				
EKOIZLEA / ABELTZAINA				
Fabrikatzailea ☐		Abeltzaina ☐		
Banatzailea ☐		Importatzailea ☐		Tratularia ☐
Elkartearen izena / helbidea				
Harremanetarako pertsona				NAN/IFZ:
Ustiategiaren kodea:				
Tel.:		Fax:		E-mail:
Helbidea:				
ALDEZ AURREKO EKINTZAK				
Ekoizlea / abeltzaina				
Administrazioa				

Bestelako Informazio Garrantzitsua

ALERTAREN GARAPENA

ARRISKUA

Irregularitasuna:

Arriskua: Egiartzatua ☐ Egiartzatu gabe ☐

Analisiaren teknika / diagnostikoa: Laginketa data:

Laborategia: Ofiziala ☐ Ez ofizialak ☐

Larritasuna: Lagin mota: Laginketa data:

PRODUKTUA / ANIMALIAREN KOKAPENA

Kokalekua: Bolumena / Zentsua:

Lantegia ☐

Biltegia ☐

Minorista ☐

Kontsumitzailea ☐

Zehatza ☐

Estimatu ☐

Ustategia ☐

Hiltegia ☐

Zehatza ☐ Estimatu ☐

KOKAPEN DATUAK

Elkartearen izena / helbidea: Bolumena / zentsua:

Animalia Kaltetuak: Ustategiaren kodea:

Harremanetarako NAS/IFZ

Tel.: Fax: E-mail:

Helbidea:

EAEko arlo kaltetua

Oharrak

ALERTAREN KUDEAKETA

INFORMAZIOAREN / ANALISIA

Informazioa eskatu/elkartrukatzea ☐

Balizko kaltetual bisitatzea ☐

Laborategiko probak ☐

Bestelako informazioa ☐

EKINTZAK

Baztertzea / Deusezte ☐

Prebentziozko ekintzak ☐

JAKINARAZPENA

Agintariak ☐

Bitartekoak ☐

Beste batzuk ☐





 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA		ALERTA		
Alertaren izena		Alertaren kodea aaa/nnn/****		
		Baztertu edo deusezteko plana		
Susmoa ☐	Alerta ☐	Egiten ☐	Amaitua ☐	Bukatua ☐
BAZTERTU / DEUSEZTEKO PLANA				
Xedea:				
VISITA A POSIBLES AFECTADOS				
Ekintza:	Ibilgetzea ☐	Baztertzea ☐	Deusezteza ☐	
Nork:				
Ekoizlea ☐	NAS ☐	FFAANS ☐	BESTE BATZUK ☐	
Oharrak:				
NORAKOA-TRATAMENDUA				
Destinoko lekua:				
Tratamenduaren data / ordua:				
Bideak:				
Informazio bilketa:				
Erregistroak:				
(Baztertu/deuseztutako animalia/produktuen identifikazio datuak eskaneatu)				
EGIAZTAPENA				
Helburua bete da:	BAI ☐	EZ ☐		
Oharrak:				

4. eranskina: Bazterratze eta Deuseztatze Plana